

PRENTSA OHARRA: 2026.03.16

## Etxepare Euskal Institutuak munduko 17 hiritan sustatu ditu Korrikaren aldeko ekintzak

- Institutuak nazioartean sustatzen dituen euskara eta euskal kultura irakurletzek eta euskal etxeek egitarau bereziak antolatu dituzte AEK-ren ekimenarekin bat egiteko
- **24. Korrika** martxoaren 19tik 29ra egingo da, Atharratzetik Bilbora.

**Donostia, 2026ko martxoaren 16a**- 'Euskara gara' lelopean, nazioartera zabalduko da, beste behin, [Korrika](#). Ohi bezala, Etxepare Euskal Institutuak bat egingo du AEK-ren ekimenarekin, Euskal Herritik kanpo euskarari babesa eta zabalkundea emateko. Horrela, mundu osoko euskal etxeetako kideek eta unibertsitatetako euskara eta euskal kultura irakurletzen irakasleek askotariko jarduerak antolatu dituzte egunotarako. Orotara, Institutuak sustatutako ekimen ugari egingo dira munduko 17 hiritan, Korrikaren nazioarteko testuinguruan.

Martxoaren 19tik 29ra egingo da 24. Korrika. 11 egunetan, 2.175 kilometro burutuko dituzte Euskal Herri osoan barrena, Atharratze abiapuntu eta Bilbo helmuga hartuta.

Etxepare Euskal Institutuaren lankidetzarekin, **munduko 17 hiritan** egingo da euskararen aldeko lasterketa erraldoiarekin lotura duen ekimenen bat. **European**, 8 hiritan (Alemanian, Espainian, Frantzian, Italian, Polonian); **Hego eta Ipar Amerikan**, 8 hiritan (AEB, Kolonia, Mexiko, Peru, Txile); eta **Ozeanian** Sidneyn antolatu dituzte ekintzak bertako Euskal Etxeek eta unibertsitatetako irakurletzek.

Alde batetik, euskara eta euskal kultura irakurletzek antolatu dituzte ekintza hauek. Etxepare Euskal Institutuak mundu osoko unibertsitateekin lankidetzak-hitzarmenak sinatzen ditu euskal ikasketak eskaini ditzaten. Euskara eta euskal kulturarekin loturiko ikasgaiak ematen dituzte Institutuak sustatutako [irakurletzek](#) munduko hainbat unibertsitatetan. Programa ezberdinen bidez irakurleen prestakuntza eta ikasleen euskara gaitasuna sustatzen du Institutuak.

Bestetik, munduan zehar daude hainbat Euskal Etxek ere antolatu dituzte ekintzak. Etxepare Euskal Institutuak harreman estua du munduko hainbat euskal etxeekin, haietan euskara irakatsi dadin sustatzen baitu, bai [Euskara Munduan](#) programaren bidez, bai eta material didaktikoa bidaliz ere.

Munduko hiri askotan, bertako irakurletzetako ikasle eta irakasleek eta euskal etxeko kideek elkarlanean antolatu dituzte Korrikaren aldeko ekintzak, nazioarteko euskal komunitatearen batasunaren adierazle.

Azken edizioetan bezala, Etxepare Euskal Institutuak Korrikarekin bat egingo du aurten ere, euskararen aldeko mezua munduan zehar zabaltzeko. Nazioartean Korrikak sustatzeaz gain, [bideo lehiaketa](#) bat antolatu du euskal etxeetako eta irakurletza sareko ikasleen artean AEK-rekin lankidetzan, eta 'Etxepare' gunea babestuko du Bilboko Plaza Barrian, martxoaren 29an, egitasmoaren azken egunean.

Hauek dira munduan zehar Korrikaren alde egingo diren ekintzak:

## **EUROPA**

### **PARIS (FRANTZIA) – OTSAILAK 18 ETA MARTXOAK 7**

Antolatzaileak: Sorbonne eta Sorbonne Nouvelle unibertsitateetako irakurletza eta Pariseko Euskal Etxea.

- Otsailak 18: 'Courir pour faire vivre nos langues minorisées' ('Lasterka egin gure hizkuntza minorizatuak bizi daitezen') mahai-ingurua antolatu zuten Sorbonne-Nouvelle unibertsitatean, La Passem, Ar Redadeg, eta A Corringua Korrika Ahizpen ordezkariekin batera, hizkuntza gutxituen aldeko lasterketen historia, helburuak, erronkak eta testuinguru desberdinak ezagutaraztea helburu.
- Martxoak 7: Korrika Txikia egin zuten.

### **BORDELE (FRANTZIA) – MARTXOAK 14**

Antolatzailea: Bordaleko Euskal Etxea.

Korrika Txikia egin zuten.

### **PAU (FRANTZIA) – MARTXOAK 19**

Antolatzailea: Paueko Lagunt Eta Maitia Euskal Etxea

24. Korrikaren hasieran parte hartuko dute Atharratzen, eta 10. Kilometroan lekukoa hartuko dute, Mendikotan.

### **BOLONIA (ITALIA) - MARTXOAK 19**

Antolatzailea: Università di Bologna unibertsitateko irakurletza

Korrika Txikia egingo dute unibertsitatearen ingurumarietan, Bolognako euskara eta euskal kulturako ikasleek, Erasmus ikasle euskaldunek eta inguruko euskaltzaleek.

### **POZNAN (POLONIA) – MARTXOAK 19**

Antolatzailea: Uniwersytet im. Adama Mickiewicza unibertsitateko irakurletza

Poznango unibertsitateko campusetik Poznan erdiguneko plazaraino Korrika Txikia egingo dute irakurletzako ikasleek eta ikasle ohiek.

## **BERLIN (ALEMANIA) – MARTXOAK 21**

Antolatzailea: Gernika Deutsch-Baskischer Kulturverein Euskal Etxea

Korrika Txikia egingo dute Kreuzberg auzoan, eta jan-edanak eta haurrentzako ekintzak izango dira. Halaber, Lucha Amada djak girotuko du jardunaldia.

## **MADRIL – MARTXOAK 21**

Antolatzailea: Madrilgo Euskal Etxea, Madrilgo Konplutentse unibertsitateko irakurletza eta Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialeko Euskara Saila.

Korrika Txikia egingo dute, unibertsitatean hasi, Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialetik pasa, eta Euskal Etxean bukatuko da ibilaldia, Madril zeharkatuz. Ondoren, pintxo-potea eginen dute Lavapieseko euskal tabernetatik.

## **BARTZELONA – MARTXOAK 21**

Antolatzailea: Bartzelonako Euskal Etxea

Hainbat jarduera aurreikusi dituzte, besteak beste, Korrika Txikia Euskal Etxetik Can Batllòra, bertan euskal dantza erakustaldi bat egingo da; herri-bazkaria, bingo musikatua eta musika-kontzertuak ere izango ditu hitzorduak.

## **VALENTZIA – MARTXOAK 28**

Antolatzailea: Valentziako euskal etxea

Pintxo-potea, herri-jolasak, Korrika Txikia eta Leinu musika-taldearen emanaldia egingo dituzte.

## **AMERIKA**

### **SANTIAGO (TXILE) – MARTXOAK 21**

Antolatzailea: Santiagoko Euskal Etxea eta Txileko Euskal Dantza Taldea

Korrika Txikia antolatuko dute Espainia estadioan, Gizataldeen Jaiaren testuinguruan. Txileko Euskal Dantza Taldeak ere parte hartuko du.

## **CALDAS (KOLONBIA) – MARTXOAK 21**

Antolatzailea: Caldaseko Gure Mendietakoak Euskal Etxea

Ekitaldi irekia antolatuko dute Sabaneta hirian, eta bertan parte hartuko dute euskara ikastaroko ikasleek, bazkideek eta gure Euskal Etxeak laguntzen duen aisialdia aprobetxatzeko proiektuko hurrek.

## **VALPARAISO (TXILE) – MARTXOAK 22**

Antolatzailea: Valparaisoko Euskal Etxea

Korrika Txikia egingo dute, Viña del Marreko Relog de Flores leku enblematikoenetakotik aterata eta Euskal Etxearen parean amaituta. Lasterketa bukatutakoan, lekukoak daraman mezua irakurriko dute euskaraz. Euskara ikasleek hartuko dute parte.

## **ILLINOIS (AEB) – MARTXOAK 24**

Antolatzailea: University of Illinois Urbana-Champaign unibertsitateko irakurletza.

Korrika Txikia egingo dute irakurletzako irakasle eta ikasleek.

## **MEXIKO HIRIA (MEXIKO) – MARTXOAK 24, 25, 26, 27, 28**

Antolatzailea: Mexikoko A.C. Euskal Etxea

- Martxoak 24: Pintxo-zinema, 'Azken erromantikoak' filmaren emanaldiarekin
- Martxoak 25: Pintxo-zinema, 'Faisaien irla' filmaren emanaldiarekin
- Martxoak 26: Pintxo-zinema, 'Gaua' filmaren emanaldiarekin
- Martxoak 27: Pintxo-zinema, 'Maspalomas' filmaren emanaldiarekin
- Martxoak 28: Korrika Txikia egingo dute, eta herri-bazkaria, bazkalosteko kantuak eta herri-kirolak ere aurreikusi dituzte.

## **CHICAGO (AEB) – MARTXOAK 26**

Antolatzailea: University of Chicago unibertsitateko irakurletza.

Korrika Txikia eta askaria egingo dituzte.

## **SYDNEY (AUSTRALIA) – MARTXOAK 28**

Antolatzailea: Sydneyko Euskal Etxea

Sydney Observatory gunetik Euskal Etxeraino Korrika egingo dute goizean. Ondoren, Euskal Etxean bazkaria egitea aurreikusi dute 60 bat lagunek.

## **LIMA (PERU) – MARTXOAK 29**

Antolatzailea: Limako Euskal Etxea

Korrika Txikia eta herri-bazkaria egingo dituzte.

## **TRUJILLO (PERU) – MARTXOAK 29**

Antolatzailea: Trujilloko Euskal Etxea

Korrika Txikia, euskarari buruzko hitzaldia eta bazkaria antolatu dituzte.

### **Info+**

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)